

BALIOAK

Gure proiektuarekin eskaintzen duguna tabernetatik edo jatetxeetatik etxeetara elikagaiak eramatea da. Gure zerbitzuarekin honako balioak eman nahi ditugu:


- **Azkartasuna :**

Ziurtatzen dugu janaria ahal dugun azkarren etxeetara iritsiko dela. Horren baitan, bero iritsiko dela bermatzen dugu. Horrela ez balitz ez genuke kobratuko ez zerbitzua ezta garraioa ere.



- **Prestazioa:**

Zerbitzuaren erabilera hobetzea da gure helburu nagusietako bat. Honekin, enpresa handiak asetu ezin dituzten tabernen edo jatetxeen janariak banatzeaz arduratuko gara.



- **Erosotasuna:**

Guztiori noizbait gertatu zaigu sukaldatzeko eta kalera janari bila ateratzeko gogorik ez izatea. Egoera hau bideratzeko telefono dei bat bakarrik baino ez diguzu egin behar gustuko duzun janariaz gozatu ahal izateko.

Gainera gaur egungo egoerari dagokionez, janaria etxeetaraino eramatea abantaila bat da, horrela kutsatzeko arrisku gutxiago izanez.



- **Segurtasuna:**

Ziurtatu dezakegu gure banatzaileek gobernuak ezarritako segurtasun neurri guztiak bermatzen dituztela. Hau da, latexko eskularruak eta musukoa banaketa bakoitzaren ondoren aldatzen dute.

